

FUNTSEZKO JARDUERAK

Sendero Vivo-ren funtsezko jarduerak ez dira soilik ekitaldiak antolatzea; gure lana esperientziak sortzea da, hasieratik amaierara, jasangarritasuna eta kultura ardatz hartuta. Jarduera hauek dira gure negozio-eredua funtzionatzen duen oinarria, eta horietako batzuk ezin dira kanpora atera, gure ezagutzaren parte direlako.

Ekitaldien diseinu kontzeptuala eta pertsonalizatua

Ekitaldi bakoitza hutsetik sortzen da. Bezeroarekin elkarriketa sakona egiten dugu bere istorioa, balioak eta itxaropenak ulertzeko, eta hortik abiatuta kontzeptu propio bat diseinatzeko dugu.

Hau Sendero Vivo-ren jarduerarik estrategikoena da, eta ezin da azpikontratatu, gure balio proposamenaren muina delako.

Jasangarritasunaren plangintza eta inpaktuaren kontrola

Ekitaldi bakoitzaren aurretik, bitartean eta ondoren, ingurumen-irizpideak definitu, aplikatu eta neurtzen ditugu. Hondakinen kudeaketa, material aukeraketa, energia erabilera eta garraioa kontrolatzen ditugu.

Jarduera hau funtsezkoa da gure proiektuaren sinesgarritasunerako, eta gure lanaren alde diferentzial nagusietako bat da.

Tokiko hornitzaileen eta kultur eragileen koordinazioa

Artisauak, musikariak, sukaldariak, lorezaina edo logistika zerbitzuak koordinatzea eguneroko jardura nagusietako bat da.

Gure lana ez da soilik kontratatzea, baizik eta sare bat aktibatzea, pertsona eta proiektu desberdinak helburu komun baten inguruan lerrotuz.

Ekitaldiaren exekuzioa eta arazoek kudeaketa zuzena

Ekitaldiaren egunean dena ondo ateratzeko, gure taldeak presentzia aktiboa du. Ustekabeak konpontzea, ordutegiak doitzeko edo azken uneko erabakiak hartzea funtsezko jardura da. Arazoak azkar eta modu diskretuan konpontzeko gaitasuna da gure profesionaltasunaren froga.

Bezerearekin harremanaren zaintza eta jarraipena

Ekitaldia baino lehen, bitartean eta ondoren, bezerearekin komunikazio etengabea mantentzen dugu. Jardura honek konfiantza sortzen du eta epe luzeko harremanak eraikitzen ditu.

Ez da marketing-ekintza hutsa: harremanaren kudeaketa estrategikoa da.

Ikaskuntza eta etengabeko hobekuntza

Ekitaldi bakoitzetik ikasten dugu. Zer funtzionatu duen, zer hobetu daiteke eta zer berrikuntza aplika daitekeen hurrengoan aztertzen dugu.

Jarduera honek aukera ematen digu eguneratuta egoteko, araudi berrira moldatzeko eta gure zerbitzuak etengabe hobetzeko.